





Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

Bilaketa bakarra erabiltzaileentzat: datu guztiak klik batean

 2019ko maiatza 10, ostirala  10:00 – 14:00

 Subijana etxea, Amasa-Villabona (Gipuzkoa)

Sarrera doan. Izen-ematea, maiatzaren 8ra arte
xenpelar@bertsozale.eus

Ahozko ondareak berezko dituen ezaugarriengatik, hainbat gunetan biltzen diren datu eta dokumentazio mota ezberdinak modu bateratuan eskaintzeko beharrak bultzatuta sortu dira aurtengo jardunaldiak.

Beharrian hau ahozko ondaretik haragokoa ere bada. Interneten herritarrei ahalik eta informazio gehien eskuragarri jartzeko ondarearen digitalizazio eta datu-bilketa handiak egin dira azken urteotan, eta, ondorioz, gune ezberdinak sortu dira.

Teknologia berriei esker, hainbat gunetan dauden datuak bilaketa bakarrean eskaintzeko aukerak sortu dira, eskaintzen den ondarea eta informazioa herritarren eskura jartzeko erraztasunak biderkatu direlarik.

Aurtengo jardunaldietan erabiltzaileei “bilaketa bakarra” eskaintzea helburu duten esperientziak ezagutarazi nahi dira, maila estrategikoan nahiz teknikoan emandako pausoak partekatzeko eta izandako zailtasunetatik eta lorpenetatik elkarrekin ikasteko aukera izateko.

Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak dokumentazio alorraren inguruko eta, bereziki, Euskal Herriko dokumentazio gaien inguruko gogoetak bultzatu eta ezagutarazteko helburuarekin sortu ziren. Aurtengoa seigarren edizioa da.

Antolatzaileak

2019ko Xenpelar Dokumentazio Jardunaldien antolatzaileak Mintzola Ahozko Lantegia, Bertsozale Elkarte eta Iametzta Interaktiboa gara. Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkarteak (ALDEE) lagundu du jardunaldien berri zabaltzen.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Egitaraua

10:00 **Liburubila, online baliabideak eta mailegu sare zabala klik batean**

Mikel Aizpuru. Eusko Jaurlaritzaren Ondare zuzendaria

Francisca Pulgar. Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzuko arduraduna

Liburubila egitasmoaren bidez herritarrei dokumentazioa eskuragarri jartzeko apustua egin du Eusko Jaurlaritzak, hiru dokumentazio datu-base bilaketa bakarrean bilduaz: Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko katalogoa (EAEko liburutegi publikoen katalogo kolektiboa eta mailegu zerbitzua eskaintzen dituena), eLiburutegia (formatu digitaleko liburuak mailegatzeko zerbitzua), eta Liburuklik (dokumentu historikoen – liburu, aldizkari, eta abar - digitalizatutako kopiak eskaintzen dituen biltegia). <https://www.liburubila.euskadi.eus/>

10:40 **Artium museoko askotariko ondarea interneten eskuragarri**

Elena Roseras. Artiumeko Liburutegi arduraduna

Museoaren jarduerak sortutako eta bildutako dokumentazio guztia herritarrek erraz ezagutu eta eskuragarri izateko ahalegina egin du Artiumek. Kode irekiko VuFind izeneko softwarean oinarrituta, katalogo bibliografikoa, argazkiak, museoak egindako erakusketen eta jardueren dokumentazioa, eta beste hainbat dokumentu eta informazio bilaketa bakarraren bidez eskuratu daiteke. <http://biblioteca.artium.org/>

Atsedena

12:00 **Bilketa.eus, elkarlanaren emaitza euskal ondare bibliografikoan**

Marie-Andrée Ouret. Baionako Mediateka. Euskal funtsen proiektuaren arduraduna

Bilketa egitasmoa, Ipar Euskal Herrian dauden euskal dokumentuen funtsak ezagutarazi eta interneten eskuragarri jartzeko helburuarekin sortu zen. Hainbat herriko liburutegi eta mediateka, unibertsitate-liburutegi, dokumentazio zentro eta funts pribatutako bildumak arakatu daitezke bilatzaile bakarraren bidez. Numerizatutako dokumentuen funtsak ere bilaketa bakarraren bidez herritarren eskura jartzen ditu. <http://www.bilketa.eus/eu/>

12:40 **Solr bilaketa bateraturako motorea. Esperientziak**

Aitor Maritxalar. Dokumentazioan espezializatutako informatika garatzailea

Solr kode irekiko bilatzaile plataforma da, eta hainbat datu-base anitz eta espezializatueta bilduta dauden datuak modu bateratuan bilatu eta bistaratzeko aukerak eskaintzen ditu, datu-base bakoitzaren ezaugarri eta beharrianak eraldatu gabe. Euskaltzaindiak (<https://www.euskaltzaindia.eus>) eta Bertsozale Elkarteak (<https://bdb.bertsozale.eus>) Solr motorearekin egindako esperientziaren berri emango du.

13:20 **Iritzi trukea**

*Hitzaldien ondoren, bazkaritarako aukera egongo da (aurrez izena emanda)